

MODA
BETAURREKOAK



*Aitana Garayo, Maria Serrano eta Olaia
Martinez*

SARRERA

Gu Aitana, Maria eta Olaia gara eta hilabete askotan lantzen egon garen proiektua azalduko dugu. Gure enpresa oso barneratuta dago egungo merkatuan. Horren ondorioz, badakigu zer dagoen modan, jendeak behar dituen gauzak badakizkigu, besteak beste. Instagrametik ateratako



informazioa aztertu ondoren ondorio batera iritsi ginen; Instagram storiak ikusi genituen eta betaurrekoak erabiltzen dituzten influenzerrek arazo bat zuten. Bideoak grabatzerakoan, egoera batzuetatik, betaurretako kristalak lausotzen ziren eta bideoa ez zen geratzen ondo. Gero, hori ikusterakoan, merkatua aztertzeko eta arazo horri irtenbidea emango zion ideia baten bila inkesta bat egin genuen eta laginaren %67ei oso desatsegina iruditzen zitzaien

betaurrekoen erabileran hauek lausotzea. Horretaz konturatzekoan, gure proiektuari hasiera emateko ordua zela ohartarazi ginen; botoi bat sakatzean kristalak lausoa kentzen dituzten betaurrekoak.

Gure betaurrekoak oso bereziak dira arrazoi batzuetatik, hala nola:

1. Ez dituzu betaurrekoak kendu behar hauek lausotzean; beraz, oso eraginkorrak dira denbora aurrezten duzulako.
2. Betaurreko ekofriendly-ak dira, ez dute pila edo bateriarik behar. Naturarekin funtzionatzen dute.
3. Beste betaurreko batzuen prezioa dute eta gainera, diseinu askotan egongo dira.

